

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Hasieran, GAES bezalako enpresa handi batekin negoziaketa egingo genuke eta gure produktuaren berri emango lukete iragarki baten bidez. Nahiz eta gastu handia izan, etekinak eraginkorrak izan daitezkeela uste dugu, bezero askorengana iritsi daitekelako. <https://www.gaes.es/>

Horrez gain, GAES-ek gure produktua patrozinatuko du telebistan, iragarki bisuala eginez. Modu honetara, bezeroek gure produktuaren ideia printzipal bat edo oinarrizko ideia bat edukiko dute. Kontuan hartu behar da gaur egun jende askok ikusten duela telebista, beraz, ikusle askok izango zuten gure audifonoen berri.



Hau guztia kontuan hartuta, influentzia duen pertsona ospetsu batekin harremanetan jarriko ginateke. Zehazki, pertsona honek adin guztietan eragina izango duela ziurtatuko dugu, gure produktua ez baitago adin zehatz bati bideratuta. Aukeratutako pertsonak gero eta kredibilitate handiagoa izan, orduan eta seriotasun gehiago transmitituko du produktuaren iragarkiak.

Guk aukeratu dugun pertsona ospetsua Zendaya Maree da, aktore, abeslari, dantzari eta modelo dena. Bere ibilbidean zehar hainbat sari jaso ditu, tartean Urrezko Globo Sari bat, Critics Choice Awards bat, bi Emmy Sari, Satellite Sari bat eta Saturn Sari bat. Time aldizkariak munduko 100 pertsona garrantzitsuenetako bat izendatu zuen 2022ko urteko zerrendan. Aurretik aipaturiko ezaugarri gzutiak betetzen ditu:

- Adin guztietako pertsonak jarraitzen dute, hau da, bere edukia ez da adin zehatz bati bideratzen.
- Artista, modelo, abeslari eta dantzari gisa egiten duen lana baloratzen da. Mundu mailan irudi positiboa du.
- Zendayan eragina herrialde askotan islatzen da, batez ere Europako eta Estatu Batuetako herrialdeetan.



Zendaya Maree

Aipatutako hau guztia, produktua merkatuan sartzeko gauzatauko dugu, ezagutzera eramateko. Baliabide aproposak aukeratu ditugu, jendeak gure proiektuaren berri izan dezan. Behin produktuak ezaguna dela estatu mailan, iragarki hauek ez dira beharrezkoak izango; izan ere, bezeroekiko harremanetan aipatu bezala, produktu hau ez dago gizarte guztiarentzako bideratua, baizik eta ezgaitasun zehatz bat dutenentzat, zehazki pertsona gorrentzat. Beraz, iragarkiek ez dute kontsumo-maila handituko, behar dutenek bakarrik erosiko baitituzte, hau da, pertsona gorrek.

Bezeroekin mantenduko dugun harremana automatizatua izango da. Gure webgunean, atal bat izango dugu, non kontsumitzaileek galderak utzi ahal izango dituzten, eta gu ahalik eta azkarren erantzuten saiautuko gara. Horretarako, aplikazioaren jakinarazpenen zain egongo gara. Zalantzetaz gain, atal horretan kexak eta aholkuak ere utzi ahalko dituzte. Hala ere, denda fisikora etorri eta aurrez aurre zalantza komentatzeko aukera ere izango dute, baina denda-fisikoa Madrilen edukiko dugunez, bezero askok webgunea erabili beharko dute.